

noaia

**Tren pasabideak ezabatzeko
eskaera udalbatzatik**


**Udajolaserako izen ematea,
apirilaren 7tik 11ra**

**Europako Txapelketari
begira dago Itoitz Rodriguez**



Idoia Torregarai, NOAUA!ko lehendakari berria

“Estrategiko izaten jarraitzen du NOAUA!k”



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**

egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

ASTE SANTURAKO ESKAINTZAK
IKASLE EDO 18 < GAZTEENTZAT, DEPILAZIOAN:
Ingleak + besapeak: 10€ · Bekainak eta bibotea: 7€
Hanka osoak: 18€ · Hanka erdiak: 10€

BESTELAKO ESKAINTZAK
Gorputz espoliazioa eta masajea edo Aurpegiko
garbiketa osoa edo Manikura eta pedikura osoa:
30€-tan (jubilatuentzat 22€)

Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

Albisteak iruditan

Ikasleak, hezkuntza eredu propioaren alde



LOMCE, EU2015 edota Heziberri egitasmoen aurkakotasuna adierazi eta Euskal Herritik euskal herritarrentzako euskal eskola nazionala behar dugula aldarrikatu zuen Usurbilgo ikas-

leriak, martxoaren 27rako Hego Euskal Herri osoan deitu zen greba egunean. Eskaerok bideratzeko, elkarretaratzea burutu zuten Udarregi Ikastola atarian. Ikasle Abertzaleak mugimenduak

deituta, ekimen gehiago ere burutu zituzten egunean zehar. Greba eguna, Lasarten egindako eskualde mailako manifestazio batekin borbildu zuten.

Laburrean

Hurrengoa, oporraldi aurreko azken NOAUA!

Apirilaren 11ko astekaria kaleratu eta gero, bi astetan ez duzue NOAUA!ren papereko edizio-rik jasoko. Honenbestez, hurrengo asterako ohar edo zorian agurrik baldin baduzue, apirilaren 7a baino lehen ekarri NOAUA!ko egoitzara, edo bidali emailaz, erredakzioa@noaua.com helbidera. Bi asteko etenaldiaren ostean, hurrengo astekaria, 570. NOAUA!, apirilaren 30ean kaleratuko dugu.

Errenta Aitorpena kanpaina abiatzear

Autolikidazio proposamena jaso baduzue, apirilaren 7tik aurrera onartu ahalko duzue. Errenta aitorpen mekanizaturako hitzordua, apirilaren 10etik aurrera eskatu ahalko da. Eta errenta aitorpenak aurkezteko epea irekiko dute bihar-menean, apirilaren 11n. Informazio gehiago: gipuzkoa.net/ogasuna/errenta/ edo 902 100 040. Usurbilgo Udaletik, tramite guztiok euskaraz egiteko gonbita luzatzen zaie herritarrei.

Ludoteka zabalik, Aginagan

Oporrik ez beraz. Eskola Txikiko Guraso Elkartek txokoak antolatu ditu, apirilaren 14tik 16ra eta apirilaren 22tik 25era. Goizez, 9:00ak edo 10:00etatik 13:00etara. Prezioa; bazkideek 15 euro. Gainerakoek 25 euro.

Izen emateko epea, ostegun honetan, apirilaren 3an itxiko dute.

Apuntatzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 637 332 402 (Naiara).

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinaatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Erreleboak, aurrera segitzeko

Tipi-tapa, tipi-tapa korrika! Oihua ezaguna izango zaizue ezta? Orain justu hamabi hilabete igaro zen Korrikaren azken edizioa Usurbildik. Jendetza biltzen den hiriburuetatik igaro zen, herri txikietatik, gehiengo euskaraz bizi den udalerrietatik, bestelako errealtatea duten txokoetatik.

Baina lekukoa beti, emozioz beterik, hunkitua zegoen lagun baten esku. Euskararen aldeko mezu ezkutua barruan daraman lekukoak bada ki non hasten duen bidea, eta non segiko. Lagun bakoitzak bere erritmoan, moduan eramango du. Hori bai, ilusioz beti. Bai berak, baita atzetik segika dituenak ere, lekukoa mimo handiz babestuz beti.

Azken 18. Korrikaren urteurren

honen bueltan berritu da, 18 urtera heldu den NOAUA! Kultur Elkar-teen zuzendaritza batzordea. Leku-ko aldaketa izan dugu. Azken batzar nagusian izendatu zen, aurrerantzean NOAUA!k izango duen lehendakari berria; Idoia Torregarai. Ekarpe- nak egiten hasteko gogotsu, eta bere izaera erakutsiz, umore ezin hobearekin hartu du ardura berria. Astekari honetako elkarriketan duzue bere berri. Ana Aizpuruak pasa dio lekukoa. Hamar urtez egon da elkarte, proposatzen, eraikitzen, kultur elkarte bizitzen eta biziaraz- ten. Finean, zuen onena ematen. Milesker guztiagatik Ana!!!

Errelebo aldaketa gertatu da. Bai- na Korrikako edizio guztietan beza- la, lekuko aldaketa ez da euskara-

ren aldeko lasterketa uztearen sino- nimoa. Eta zer esanik ez, ezere truke emateko prest dagoen bolondre- sa goraiatzeko du jarrera horrek. Anak lehendakari izan da bai, baina kul- tur elkarte jarraituko du.

Geldiezina den euskararen alde- ko lasterketa badoa aurrerantz. Uda- leri bat atzean utzi eta estreinakoz udalerri berri bateko lurretatik barre- na lehen pausoak ematen dituenen- an, herritar uholde batek, beste bati uzten dio lekua. Badira ordea, alda- keta horretan zubi-lana egiten jarrai- tzen dutenak, udalerri berrian metro gehiago aurrerantz egiteko indarra eta adorea erakusten dutenak. Hor- txe Pello Aranburu. Anarekin eta NOAUA!ko langileekin batera, tipi- tapa bidea urratzen segitzeko prest

kultur elkarte.

Ia bi hamarkadotan gertatu beza- la, kultur elkarte honetan ibilbide bat osatu dutenak uzten, eta kide berriak gerturatzeko joan dira. Orain bezala. Batu dira lasterkari berriak. Fresko- tasunaren, ideia berrien iturri. Maia- len Unanue, Ainhoa Aizpuru eta Nerea Bordagarai. Aupa zuek, ongi etorri!!! Baina zuetako edonor ere izan liteke. Proposatuz, berritu, alda- tu, mantendu, kendu, jarri, kexatu edo galdetzekorik duzuenontzat, kultur elkarte atea zabali dituzue. Baita bereziki, 18 urteren oste- an, NOAUA! posible egin duzuen ehunka bazkideok. Ongi etorriak izango zarete zuena, guztiona den Bordaberri 3ko etxera. Lasterketak, "must go on".

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

Ika-Mika

Kutxaren etorkizuna eta Kutxabank

2011n Kutxabank sortzen dene- tik, Kutxaren norabidea alda- tuz joan dela ikusi dugu. Lurral- dearekiko eta herritarrekiko atxikimen- dua araudian jasota badago ere, zuzendaritzatik burutzen ari diren ekimenek kontrako norabidea hartu dute.

Etzegabetzeekin jarraitzen duten bitartean, IRPH gehiegizko klausula aplikatzen jarraitzeko egin ahalak egi- ten darraite. Herritar guztion dirua- rekin sortutako ondarea salgai dago, Gasteizko Legebiltzarrek zioenari muzin egin eta Onkologikoa Osaki- detzan guztiz integratzeko uko egin

zaio.

Gizartegintzara zuzendutako aurre- kontuak behera egiten jarraitzen du. Euskal ehun industria atzerrira sal- tzen dihardute, euskal autonomo zein enpresa txiki eta ertainek aurrera egin dezaten, kreditu lerroak itxita man- tenduz.

Orain ordea, Madrilén PNVk eta PPK adostutako Izaera Bereziko Fundazio- en Legearen bitartez, kontrol publi- koa desagertarazi nahi da.

Bada ordea jatorrizko izaerari eutsi eta beste kudeaketa eredutik abiatze- ko aukera, Mario Fernandezek dioe- naren kontra. Alegia, borondate poli-

tikoari eutsiz gero, Kutxabank eta beraz Kutxa, herritarrak, lurraldea eta eus- kal ehun produktiboa babesteko duen kudeaketa eredu mantendu daiteke.

Apirilaren 10ean osteguna 19:00etan Potxoenean antolatu dugun hitzaldian egoera orokorrari buruzko argazkia eskainiko zaigu, eta bete beharreko legeen kokapenetik finantza entitate publikoa eta sozia- la gauzatu daitekeelakoan, usurbilda- rrekin batera solaskidetzak irekiko da.

EH Bildu Usurbil

*Apirilaren 10eko hitzaldia Ino Galpar- sorok eta Ainhoa Beolak eskainiko dute.

Giza-katerako atxikimendu bideoa grabatzeko deia

Gure Esku Dago Usurbil lan talde- tik luzatu dute gon- bita. Ekainaren 8an, euskal- dunon erabakitze eskubidearen alde ospatuko den giza-kateari babesa adieraziko dion pieza labur bat gra- batzera animatzen ditu herritarrak. Egin beharrekoa erraza da. "Ni/gu ere han izango naiz/gara" esaldia esanez (usurbildarron euskalki poli- tarekin) bideoz grabatu zuen buruak", Gure Esku Dago bilgune- tik adierazi dutenez. Grabazioak, usurbilgureeskudago@gmail.com helbidera bidali ditzakezue.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak •beira bikoitza
- segurtasun beirak •dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak •barandak •kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Tren pasabideak ezabatzeko eskaera egin du udalbatzak



PSE-EEK aurkeztu duen mozioak gainontzeko udal ordezkarien babesa jaso du.

PSE-EEK aurkezturiko mozio baten bidez, ondoko irudikoa bezalako Usurbilgo tren pasabideak ezabatzea eskatu zuten udal talde guztiek, martxoaren 25ean burutu zen osoko ohiko bilkuran. Sozialistek aurkezturiko testuak jasotzen duenez, pasabideak ezabatzea da hain zuzen, gune horietako "oinezko eta auto istripuak saihesteko" modu bakarra. Eta pasabideak kendu ezin diren kasuetan, ahalik eta segurtasun neurri handienak hartzea galdegiten du mozioak.

Udal ordezkariak aho batez onarturiko bi puntuko testuak, honela dio:

1. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingarumen eta Lurralde Politika Sailari dei egiten dio, herrian dauden 8 tren pasaguneak eta nasen arteko pasabidea ezabatzeko. Gure herria Gipuzkoan dagoen tren pasagune gehien duen herria delako eta Euskal Autonomi Erkidegoan bigarrena izanik Euskal trenbide sarean.

2. Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Ingarumen eta Lurralde Politika Sailari, Euskal Trenbide Sareari (ETS) eta Eusko Legebiltzarrari akordio honen berri emango dio.

UDALBATZAK, AHOBATEZ

"Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, herrian dauden 8 tren pasaguneak eta nasen arteko pasabidea ezabatzeko"

Proiektua prest, aurrekontua falta

Usurbilgo Udalak gai hau aspalditik du mahai gainean. Eusko Jaurlaritzako egungo eta aurreko ordezkariekin bildu izan dira, tren pasaguneak ezabatzea eskatzeko. Udalaren kezka iturri nagusi dira, herritar mugimendu gehien izaten duten Troia eta Atalluko pasabideak. Usurbildik eginiko eskaeren aurrean, gaur arte Gasteiz ez du egoera bideratzerik izan, finantziario arazoengatik. Halere, pauso bat eman du Jaurlaritzak, aurreko asteko osoko ohiko bilkuran, Mertxe Aizpurua alkateak berri eman zuenez; Atalluko pasabideari loturiko proiektua eginga dago. 800.000 euroko inbertsioa aurreikusten dute tren geltoki ingururako. Alkateak esan zuenez, lehentasuna emango dio Jaurlaritzak proiektu honi, baina aurrerago. Egungo egoera ekonomikoa hobetzen denean.

Hitzarmen berria, udal alokairuko etxebizitzak kudeatzeko

Guztira, egun, 19 etxebizitza ditu alokairuan Usurbilgo Udalak. 12 Txaramuntun (bizilekuak esleitzeko prozedura abiatu berri da) eta beste 7 Maixu etxean (Agerialde ondoko eraikinean). Pisu guztion administrazioa eta mantenua kudeatzeko hitzarmen berria sinatuko du Udalak Alokabide S.A.-rekin. Hala erabaki du udalbatzak. Udal talde guztiak proposamenaren alde agertu ziren, Hamaikabat izan ezik, bozketan abstenitu baitzen.

Datorrenak, 2009tik indarrean zegoen hitzarmena ordezkaturiko du. Ordutik, azken urteotan hainbat aldaketa txertatu dituzte hitzarmen berrian.

Txaramuntoko zozketarako izen ematea

Udal jabetzako bizilekuotan apuntatzeko epeak zabalik jarraitzen du apirilaren 10era arte. Argibideak eta eskabide orriak udal erregistroan eskura daitezke. Bertan tramitatu behar da izen ematea eta aurkeztu baita, beharrezko dokumentazio guztia. 40-59 metro karratu arteko zortzi pisu zozketatuko dira. Urtebeteko alokairu kontratuak izango dira, bost urtera arte luzagarriak, urtez urte berrikusiko direnak. Etxebizitza hauek kupoka zozketatuko dira.

■ Ezinduk: etxebizitza bat.

■ Etxebizitza premia berezia duten eskatzaileak: adimen edo garapen-degaitasuna dutenak, gerora sortutako ordaintzeko ezinagatik ohiko etxebizitza jabetza galdu dutenak, genero-indarkeriaren biktima direnak, edo 70 urtetik gorako pertsonak, bananduak, dibortziatuak eta alargunak. 3 etxebizitza.

■ Etxebizitza premia duten eskatzaile edo bizikidetza-unitate espezifikoak: beren kargura adin txikikoak dituzten guraso bakarreko bizikidetza-unitateak eta 30 urtetik beherakoak. 3 etxebizitza.

■ Kupo orokorra: aurreko kupoetarako gordetzen ez diren etxebizitzek osatuko dute. Etxebizitza bat gutxienez.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

**943 24 01 76 eta
649 435 470**
errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ETXETRESNEN KONPONKETAK

Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

Salto kuantikoaren garrantziaz



Izaskun Silvák eta Willy Jones-ek hitzaldia antolatuko dute Sutegin, larunbat honetan 19:00etan.

Gizakiaren historian aldaketa oso garrantzitsua suposatzen du salto kuantikoak, hala adierazi digute Willy Jones-ek eta Izaskun Silvák. Horren berri emateko, hitzaldia eta erakusketa antolatuko dute.

NOAUA! Apirilaren 5erako Sutegin antolatuko duzuen hitzaldiaren helburua zein da?

Willy Jones, Izaskun Silva. Gizakiaren historian aldaketa oso garrantzitsua suposatzen du salto kuantikoak, orain arte ezezagunak zitzaizkigun errealitatearen ezaugarriak erakusten dizkigulako.

Hitzaldiaren helburua ikuspegi berri bat ematea da, ezagutza hauek tresna bilakatu eta eguneroko bizitzan baliatu ahal izateko. Ikuspegi oso interesgarria da, existentzia modu irekiago eta integratuago batean ulertarazten laguntzen diguna.

Denok ditugu ahalmenak eta funtzioak garrantzizkoak ez ditugunik, eta aktibatuak izan daitezkeenak. Gure galdera askoren erantzunak atomoa-ren baitan daude.

Salto kuantikoaren mezua da guk geuk sortzen dugula gure errealitate propioa, gure pentsamen-

duen eta sentimenduen bidez.

Sektore jakin bati zuzendua dago larunbateko hitzaldia ala pertsona orori eskainia dago?

Pertsona guztiei zuzendua dago, ez da hitzaldi tekniko bat, ez da beharrezkoa hitzaldiaren aurretik gai honi buruzko informazioa edukitzea.

Denok ulertu ahal ditzakegun ezagutzak dira, naturalak, oso errazak ulertzen.

Eta erakusketan, zer topatuko du bisitariak?

Bisitariak "Buda Cuántico" izeneko eskulturak topatuko ditu, gure errepresentazio direnak, euren bitartez elkar eragin ahal izango dugu, iraganarekin eta etorkizunarekin konexio bat ezarri. Era berean, Buda bakoitzak bizitzaren ezaugarriei buruzko mezu bana izango du, poesiatxo kontziente batekin batera.

Hitzaldia: apirilak 5 larunbata, 19:00etan Sutegin auditorioan.

Erakusketa: apirilak 3-6, 11:00-14:00/17:00-21:00 Sutegin erakusketa aretoan.

Udajolasen izena emateko garaia da

4-12 urte arteko haurrei zuzenduriko udako aisialdi eskaintzan apuntatzeko epea apirilaren 7an irekiko dugu eta bost egunez egongo da zabalik, hilaren 11ra arte. Ez da epea kanpoko izen ematerik onartuko.

Uztailaren 1etik 30era luzatuko den euskarazko aisialdi eskaintzan apuntatzeko, ikasketetan banatuko den eskuorria, datu pertsonalekin beteta ekarri behar da NOAUA!ko egoitzara. Eskuorria behar duenak, NOAUA!ko egoitzan bertan eskura dezake.

140 lagunentzat tokia

NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak adostua duten hitzarmena kontuan izanda, 140 umerentzako lekua dago. Horregatik eta zerbitzu on bat bermatzearren, ez dira haur gehiago onartuko.

Izen emate kopurua 140tik gorakoa balitz, plazen zozketa egingo da maiatzaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Zozketa ostean kaleratuko da, Udajolasen onarturiko haurren zerrenda.

Uztailaren 1etik 30era iraungo du Udajolasak. Astelehenetik ostiralera, goizez, 9:30-13:30 artean.

Izen-ematea

Epeak: apirilaren 7tik 11ra.

Ordutegia: goizez, 10:00-11:00 artean; arratsaldeko, 16:00-18:00 artean.

Tokia: NOAUA!ko egoitza.

Ekarri beharrezkoa: izen emate orria, datu pertsonalekin beteta. Ez da epea kanpoko izen ematerik onartuko.



Apirilaren 11n amaituko da izen-ematea.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

APIRILAK 11, OSTIRALA

INPOSAKETARIK EZ

GUK GEUREAK

ehbildu
www.ehbildu.net

**Herritarrei deia!
Usurbildarrak euskal ikurrekin!**

Usurbilgo EHBilduk dei egiten die herritarrei
18:00tan udaletxera gerturatzeko, Aberri Egunari begira
Udalbiltzaren mozioa aurkeztuko da ezohiko plenoan.

**Ikurriñekin eta Nafarroako banderekin plenoa
amaitzean kolorez beteriko argazkia aterako dugu!**

Badator, hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema berria

Hasieraz onartu zuen udalbatzak, martxoaren 25eko osoko ohiko bilkuran, EH Bilduko udal ordezkarien aldeko bozkekin. EAJ-PNV-ko zinegotzia abstenitu zen. Hamaikabat eta PSE-EEkoak aurka agertu ziren. Aldaketarik ez bada, neurri hau behin betiko onartu eta indarrean jarriko duten unetik, herritar bakoitzak ordaindu beharko duen hondakinen tarifa bitan zatituko da. Tarifik zati finkoa izango du, denek berdin pagatu beharrekoa, eta bestetik sortutako erreus kopuruaren mende egongo den zati aldakorra. Kasu honetan, zenbat eta hondakin gehiago sortu, gehiago ordaindu beharko da. Gutxiago sortzen duenari, zati aldakor honi dagokion diru-kopurua murriztuko zaio.

Sortzez besteko ordainketa abiatzea, "gure ingurumenarekiko errespetuak agintzen digun urratsa" dela dio gobernu taldeak. Pauso berria, Usurbilgo atez ateko bilketak bost urte bete berri dituen honetan emango da. Orain arte enprestan aplikatzen zen sistema, aurrerantzean etxebizitzetara zabalduko da. Oraingoan, Udalaren esanetan, tratamendu kostu handiena eragiten duen erreusaren bilketaekin aplikatuko da ordainketa sistema berria. Beste hondakin zatiekin, momentuz ez. Halere, neurri berri hau ez dute askorik nabaritutako herritarrek, Jose Maria Rivade-



EH Bilduko udal ordezkarien aldeko bozkekin onartu zen sortzez besteko ordainketa sistema berria. EAJ-PNV-ko zinegotzia abstenitu egin zen.

Hamaikabat eta PSE-EEkoak aurka agertu ziren.

HELBURUA

"Neurri honekin, auzokonpostatze guneak herritarrek kudeaturikoak izatea sustatu nahi du Udalak"

neyra zinegotziak martxoaren 25eko osoko ohiko bilkuran azaldu zuenez. Sistema hau zer modutan gauzatuko den, beharrezko argibide guztiak eskaniko ditu Udalak, aurrerago.

ALDAKETA HOBARIETAN

Hau da gobernu taldeak, hondakinen bilketa zerbitzuaren udal ordenantza barruan, txertatzea proposatu duen aldaketa fiskala. Hasieraz onartu zuen udalbatzak gehiengoz martxoaren 25eko osoko bilkuran. Baina bada besterik ere.

Auzokonpostatze egitasmoan parte hartzen ari diren herritarrei aplikatzen zaizkien hobarietan ere berrikuntza bat proposatu baitu udal gobernu taldeak. Azken osoko bilkuran, gehiengoz hasieraz onartu zena. Kudeaketa lanetan, Udalaren laguntza jasotzen duten auzokonpostatze guneetako herritarrei, %40tik %20ra murriztuko zaie, orain arte aplikatzen zitzaizkien hobaria. Herritarrek kudeatzen duten guneetan, hobariak bere horretan mantenduko dira. Orain arte bezala, %40an. Aldaketa honen zergatia, Rivadeneyra ingurumen zinegotziak azaldu zuen, azken osoko bilkuran. Neurri honekin, auzokonpostatze guneak, gune autogestio-natuak, herritarrek kudeaturikoak izatea sustatu nahi du Udalak.

Hondakinen udal ordenantza ere, hasieraz onartua

Bost urte bete berri ditu atez ateko bilketa sistemak Usurbilen. Beste hainbeste urte ditu hondakinen bilketa eta tratamenduari loturiko udal ordenantzak. 2009az geroztik hainbat aldaketa puntual bideratu dituzten arren, aipatu araudiari "goitik behe-rako" errepasoa ematea erabaki dio orain, gobernu taldeak. Hainbat hobekuntza biltzen ditu dokumentu eraberrituak; hala nola, atez atekotik kanpo dauden gainerako hondakinen bilketari loturikoak. Orain arteko testuak ez bezala, euskara lehenetsiko du udal ordenantza honek. Arau hausteen atala ere egokitu du gobernu taldeak, "ordenantzan hobeto nola jaso ikusi da", isun kopurua dezente jaitsi dela nabaritu ostean. "Esperientziak gauzak hobetzeko baliyo izan digu", zioen ingurumen zinegotziak azken osoko bilkuran. Udal ordenantza berria, gobernu taldearen esanetan, "egungoa baino hobea da". Hondakinen bilketa eta tratamenduari loturiko araudi berriaren alde bozkatu zuten EH Bilduko udal ordezkariak. EAJ-PNV abstenitu zen. Hamaikabat eta PSE-EEko zinegotziek aurka bozkatu zuten.

MIKEL AKADEMIA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitateak
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak • Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Josue Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ARTZABAL

Baserria - Jatetxea

943 36 91 39

artzabaljatetxea.com

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € *tik*

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Sarrerren salmenta



Kutxabank
zerbitzuen bidez



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



bastero
KULTURGUNEA



"HAMLET"
Artedrama, Le Petit Theatre de Pain,
Dejabu Panpin Laborategia
APIRILAK 11, ostirala, 21:30h



"ROMEO"
Teatro Meridional
APIRILAK 25, ostirala, 21:30h



"BIDE ERTZEAN"
77 diskoaren aurkezpena
APIRILAK 12, larunbata, 20:00h

Andoaín ekitaldiak

Tel. 943 303 540 - <http://basterokulturgunea.blogspot.com.es>

Idoia Torregarai, NOAUA!ko lehendakari be

9 Oeko hamarkadaren erdialdean, jende askok hartu zuen parte NOAUA!ren sorreran. Horien artean zen Idoia Torregarai. Aurreko astean elkarteko lehendakari izendatua izan zen eta, ikusiko duzuen moduan, ilusioz heldu dio erronka berriari.

NOAUA! Aldizkariaren eta elkartearen sorreran hartu zenuen parte eta urte batzuen bueltan berriz ere NOAUA!n zaude, lanerako prest. Bixia, ezta?

Idoia Torregarai. Bizitzak buelta asko ematen ditu. 22 urterekin NOAUA!ren sorreran hartu nuen parte. Niretzat kazetari eskola handia izan zen, eta herri proiektu bat martxan nola jartzen den ikasteko ere esperientzia handia izan zen. Orduantxe kazetaritza ikasketak bukatzen ari ginen, gogo handia genuen gauzak egiteko, eta bapatean horrelako proiektu baten parte izatea aberasgarria izan zen.

Sorreran eta lehengo urteetan kazetari moduan ibili ondoren, bizitzak beste toki batera eramanez ninduen. Ez oso urruti, euskalgintzan aritu naizelako beti, hori konstante bat da nigan. Kontseiluan ibili nintzen bolada batean eta gero Udal Euskal Unibertsitatean (UEU), baina NOAUA! beti izan dut oso presente.

Azken urteetan kolaboratzailer moduan aritu naiz aldizkarian. Beti mantendu dut NOAUA!rekiko lotura.

Eta gogotsu heldu diozu erantzunkizun berriari, ezta?

Oso berezia da proiektu hau niretzat, jaiotzen ikusi dudalako, eta egia esan ilusioz nator. Etxean bezala sentitzen naiz eta nire helburua izango da ahal den traba gutxiena egitea eta ahal dudana heinean laguntzea.



“Eskola handia izan zen NOAUA!ren sorrera. Geroztik, beti mantendu dut NOAUA!rekiko lotura”

NOAUA!ko sortzaileetako bat, UEUko komunikazio arduradun da gaur egun (argazkia ionmarkel.com).

1996an abiatu zen elkartea, eta aldizkaria. Nola gogoratzten dituzu NOAUA!ren sorrerako garai haiek?

Ilusioa da etortzen zaidan lehen hitza. Lan asko egin behar izan zen, zerotik abiatzen ginen eta dena bilatu behar zen: egoitza, lehen ordenadoreak...

Eta era berean, erantzunkizun handia sentitzen genuen.

Une hartan, Josu Aranberri, Ainhoa Azpirozi, Gari Udaberi eta niri tokatu zitzaigun lehen kazetariak izatea, eta zerbait handia egiten ari ginen sentsazioa genuen baina hori nahastan zitzaigun ilusioarekin, ur-

duritasunarekin, ardurarekin... Talde sendoa zegoen NOAUA!ren atzean baina bage-nekien gauzak ondo egin behar zirela, eta ardura hori ere sentitzen genuen.

Argi genuen Usurbilek horrelako proiektu bat behar zuela eta horretan sinesten genuen.

“Aldizkariaren bidez Usurbilgo etxe guztietara sartzen da euskara”

NOAUA! Gauzak asko aldatu dira 1996tik hona, baina funtsean, sorrerako helburu berberak ditu NOAUA!k: euskara eta euskal kultura sustatzea. 1996an, kalean eta paperean egiten zena, orain kalean paperean eta Interneten, ezta? Idoia Torregarai. NOAUA! proiektu estrategikoa da Usurbilentzat eta jarraitzen du izaten. Helburuak euskara eta euskal kultura sustatzea dira eta, alde horretatik, tamalez esan behar dugu asko dagoela egiteko oraindik.

Nahiz eta Usurbil herri euskalduna izan, irabaziaz uste genituen esparru batzuetan erdara asko entzuten

da. Batzuetan belarria jartzea besterik ez dago. Azken azterketa soziolinguistikoetan ere ikusi da hori. Erabilera sustatu behar dugu.

Ez hori bakarrik. Gizartea aldatu egin da, kontsumo joerak... Beraz, NOAUA!ren helburuak oso bizirik daude. Aldizkariaren bidez Usurbilgo etxe guztietara sartzen da euskara. Pertsona batzuentzat NOAUA! izango da euskaraz irakurriko duten gauza bakarra. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea ere bazen sorrerako helburuetako bat. Gazteei ere, ematen zaien produkzio handiena gazteleraz dago oraindik.

Zentzu horretan, aldizkariak jarrai-

tzen du zerbait estrategikoa izaten.

Elkartearen lana ere azpimarratzekoa da, ekitaldi ezberdinen bidez euskarari eta gure kulturari plaza ematen diogulako. Eta horrek badu bere izateko arrazoia.

Eta Internet garai hauetan, ezin gara tren horretatik atzean geratu. Gaur egun ezinbestekoa da sarean egotea: berehalakotasuna ematen digulako, mugak gainditzeko aukera ematen digulako eta hazteko toki bat delako. Belaunaldi hau eta hurrengoak teknofiloak dira, eta guztientzat erakargarri eta erabilgarri den zerbait egin behar dugu. Erronka handia dugu hor ere.

erria: “Asko dago egiteko oraindik”

NOAUA! Akaso garai batean jendearen inplikazioa handiagoa zen, baina euskara zein kultur elkarte bat den aldetik, boluntarioen lana beharrezkoa da oraindik NOAUA!n. Errelebo arazo hori orokorra izan da, ezta? Ez soilik Usurbilgoa.

Idoia Torregarai. Proiektu baten hasieran normala da indarrak metatzea eta jende bat martxan jartzea. Batez ere zerotik hasi behar denean.

NOAUA!k oraindik orain beharrezkoak ditu boluntarioak. Zergatik? Euskalgintza arloko kultur elkarte bat garelako. Eta hain zuzen, euskara diglosia egoeran dagoen heinean, beti beste egoera apalago batean, ba tamalez behar du administrazioen babesa eta norbanakoen konpromisoa.

Zentzu horretan, gauza asko daude egiteko eta erronka asko ditugu aurretik. Elkarteak kapaz izan behar du ilusio hori bideratzen. Erakargarri egin behar dugu elkarte jende berriarentzako eta gazte jendearengana iristeko. Eta bazkidea,



Martxoaren 24ko Batzar Nagusian izendatua izan zen lehendakari.

IDOIA TORREGARAI

“Erakargarri egin behar dugu elkarte jende berriarentzako eta gazte jendearengana iristeko. Eta bazkidea, harro sentiarazi horrelako proiektu bat laguntzen duelako”

harro sentiarazi horrelako proiektu bat laguntzen duelako.

Zurekin batera hiru lagun gehiago batu dira zuzendaritza taldera. Berri pozgarria, gazte jendea ere inplikatzeko prest dagoela ikus-tea, ezta?

Horrek esan nahi du zerbait erakarri dituela NOAUA!ra eta baduela zer eskaini. Beraz, oso berri ona da. Elkarte bizia dela eta bizirik dagoela esan nahi du horrek. Guretzat oso inportantea da gazteen ekarpen hori jasotzea. Ikuspegi hori jasotzea. Loraldi bat

ematen ari da gazte mugimenduan eta hori gureru ekartzea gakoetako bat izango da.

Baliabide ekonomikoen faltan, irudimenari eta sormenari heldu beharko zaio ezta?

Euskalgintzan gabiltzanak inoiz ez dugu diru askorik izan, biziraun egin dugu. Eskarmentua dugu, badakigu zer den diru gutxiarekin ibiltzea. Baina hori ez da faktore bakarra, bestela euskalgintza ez litzateke existituko Euskal Herrian. Gauzak auzolanean egiteko eta makinak martxan jartzeko beste elementu batzuk ere behar dira, ilusioa adibidez.

Nire lagun batek esaten duen bezala, “dirua ez da problema, diru falta da problema”. Egia da ez dela faktore bakarra, baina pisu handia du. Proiektuak duintasunez ateratzea inportantea da, langileak baldintza onetan egonik. Baina sormenetik eta elkarlanean ere gauza politak egin daitezke.

Erronka handietako bat finantziazio arlokoa izango da, “proiektuaren biziraupena ziurtatzea”

NOAUA! Aurrera begira, zeintzuk izango dira NOAUA!ren erronkak?

Idoia Torregarai. Lau erronka aipatuko nituzke. Lehena, aldizkariari eta web orriari dagokiona. Webgunea berritua izan da orain gutxi eta Komunitatea atala sendotzea izango da helburua. 2014rako hori egikaritzea litzateke erronka. Gizabanakoek zein herriko taldeek eta erakundeek NOAUA! Komunitatean parte hartzea. Beraien berri emateko, eta beraien artean harremanetarako topaleku bat aurkitu dezaten.

Bigarrena, kultur elkarteari dagokiona litzateke. Aldizkariaren itzalean dago baina bere funtzioa bete-

tzen du. Erronka polita du aurretik, berez herri honetan hain ugaria den eskaintzaren baitan, zerbait interesgarria eta berezia egitea. Hor ere, irizpide propioak eduki behar ditugu. Kutixiak ekarriz, adibidez.

Bazkietza aktibatzea litzateke hirugarren erronka. Bazkideak hurbiltzea, gu beraingana eta beraiek guregana, eta bigarren pauso batean bazkietza gehiagotzea, jende berria erakartzea. Ez bakarrik diruz laguntzeko, bakoitzak ahal duen heinean bere babesa eman.

Lauugarren erronka finantziazio arlokoa litzateke. Alegia, proiektuaren biziraupena ziurtatzea. Zorionez,

gauzak ez daude gaizki NOAUA!n, eta gure helburua litzateke horri eustea eta saiatu bazkietzaren bidez eta publizitatearen bidez autofinantziazio maila areagotzea. Bereziki, Administrazioetako deialdiak murriztu egin diren garai hauetan. Esaerak dioen bezala, zuhaitz eroriari orok egur. Lehen gutxi ematen zitzaionari orain iturria gutxitu egin zaio eta horregatik bereziki azpimarratu nahi nuke Usurbilen zorionekoak garelako, kasu honetan Udaletxeak hasiera hasieratik ikusi zuelako NOAUA! estrategikoa eta garrantzitsua zela, eta ikusten da 18 urte eta gero oraindik babes hori duela NOAUA!k.

“Norbaiti irribarre bat ateratzea kristoren bizipoza ematen dit”

Umorea Idoia Torregaraiaren izaeraren parte da. Bere lagunak ondo jakingo dute hori. “Ama optimista eta aita plazagizona. Bietatik daukat eta umorea da bizitza ikusteko eta bizitza bizitzeko modu bat. Nik nahiago dut alde horretatik begiratu”. Duela bi urte barretaria.com web orria ipini zuen martxan. “Gozatu egiten dut proiektu honekin”, adierazi digu. “Norbaiti irribarre bat ateratzea kristoren bizipoza ematen dit. Saiatuko naiz NOAUA!ren lehendakari izan ere alde horretatik heltzen. Dagoeneko ikusi dut zuzendaritzan oso giro ona dagoela, eta horrek asko laguntzen du lanerako orduan”.



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



PARTE HARTU ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela kargat-
zeko 20 euroko bonoak zotz
egingo ditugu.

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

BILERA HERRITARREKIN
APIRILAK 7, OSTIRALA, 18:30ETAN POTXOENEAN
USURBIL

Autobus zerbitzua hobetzeko bilera, apirilaren 7an Potxoenean

Autobus zerbitzuan hobetzeko zer dagoen, ekarpenak jasotzeko bilera erronda bat egin zuen herriz herri Foru Aldundiak, iragan udazkenean. Herritarrek hitzordu haietan eginiko ekarpenekin, aurreproiektu bat diseinatu du Diputazioak. Egitasmo hau aurkezteko bilera fase berri bati ekitekoa da asteotan. Usurbila ere etortzekoak dira berriz. Autobus zerbitzua hobetzeko parte hartze prozesuko bilera, datorren astelehenean, apirilak 7, arratsaldeko 18:30etan hasita Potxoenean. Ekjaldian, aurreproiektu honen inguruko herritarren ekarpen, proposamen eta iritziak bildu nahi dituzte.

Ospitaleko autobus zerbitzurako hobekuntzak

Aipatu moduan, 2013. urte amaieran udalerrietan eginiko bileretatik, autobus zerbitzua hobetzeko hainbat proposamen jaso zituen Aldundiak. Usurbilen eginiko saioan ere bai. Gehienak, T2 linearen ingurukoak, hau da, udalerrri hau ospitaleekin lotzen duen bus zerbitzuari buruzkoak.

Grosekoko anbulategiraino heltzea proposatu zuten herritarrek. Baita autobusa herri barrutik pasatzea ere, maiztasuna handitzea, edota Lasartetik Santuenerako transbordoia egiteko erraztasunak jartzea. Foru Aldunditik, usurbildarren ekarpen hauei erantzun zaie. Batetik, Lasartetik Santuenerako transbordoia egoki egin ahal izateko antolatuko dira ordutegiak. T2 eta T6 zerbitzuetako transbordoia ere gaizki zegoela zioten herri-



2013ko urte amaieran egin zen lehen bilera Potxoenean. Bigarrena datorren astelehenean egingo da, 18:30ean hasita.

tarrek. Lotura hau hobetzen da Aldunditik. Herritarrek eginiko beste eskaera bat ere onartua dute; autobusa herri barrutik igarotzea. Aldiz, ospitaleetara doan bus zerbitzua Grosekoko anbulatorioraino heltzea ezinezkotzat jotzen du Diputazioak. Herri arteko zerbitzua baita, ez hiriburu barnekoa eta honenbestez, Donostian tranbordoia egiteak beharrezkoa izaten segiko du. Bus zerbitzu honen maiztasuna bere horretan geratuko da Aldunditik diotenez, ezin baita handitu.

Zerbitzua indartzeko eskaerak

Usurbilgoez gain, Buruntzaldean eta Tolosaldean ere izan ziren Diputazioak. Eskualdeotako herritarrek eginiko ekarpenetatik, zenbait eskaera orokor daudela antzeman zituen Foru Aldundiak. Eta horiek kontuan izanda, orain herritarren iritzia bildu nahi dute. Astegunetako zerbitzua, goi-

zako 6:00etatik 22:00-22:30 artekoa izatearekin ados dauden edo ez jakin nahi dute. Herrietako jaiak direnean, beharrezko ikusten bada, bus errefortzuak jartzea babesten duten edo ez, edota baliabideak hobeto aprobetxatuz, gauetako zerbitzua berrantolatzearekin bat eginguten duten. Ospitaleetako zerbitzua berriz, askoren ahotan.

Aldunditik zerbitzu hau herritar gehiagoren eskura jarri izanarekin ados dauden edo ez, honen inguruan iritzia eman ahalko dute herritarrek.

Informazioa non

Autobus zerbitzua hobetze aldera, parte hartzeko eta informazioa jasotzeko bide gehiago ere zabaltu ditu Foru Aldundiak:

www.garraioahobetzen.net

Twitter: @garraioahobetz

www.facebook.com/GarraioHobetzen

Haurrekin irakurzaletasuna partekatzen ikasteko saioa

"Zer egin liburuekin: Kontu Kontari" saioa antolatu dute Yolanda Arrietarekin, apirilaren 10era-ko, 17:30-19:00 artean Sutegi udal liburutegian. Hitzordua, 0-7 urte arteko haurren guraso eta hezitzaileei zuzendua dago. Topaketan parte hartzeko, aurrez eman daiteke izena liburutegiko harreran. "Liburu mota ezberdinak eskuartean izango ditugu eta horiekin zer egin dezakegun aholkatuko digu Yolandak", aurreratu dute antolatzaileek.

Liburutegiko Txokoa NOAUA!n

Tarte honen bidez, Sutegi udal liburutegiko eskaintzaren berri emango dute hilean behin.

Halaber, noaua.com web orriko Komunitateko erabiltzaileen artean da udal liburutegia.

Eta apirilaren 15etik aurrera, "Liburutegiak App" mugikorretarako aplikazio berria ezagutzera emango dute.

Ohi bezala, hamabostaldi honetan ere, hainbat nobedade jarriko ditu liburutegiak bertaratzen direnen esku.



Yolanda Arrietak gidatuko du irakurzaletasunari buruzko saioa.

Apirilaren 11ko osoko bilkurara ikurrinarekin joateko deia

Euskal Herritarrek gara eta ozenki adierazi nahi dugu" izeneko mozioa aurkeztuko du Usurbilgo EH Bilduk, apirilaren 11rako deitu duen ezohiko osoko bilkuran. Euskal herritartasunaren alde, Udalbiltzaren Nazio Gobernuak, martxoaren 19an Donostian ezagutzera emandako ebazpenaren haritik dator datoren asteko hitzordua. Aberri Eguna-ri begira, udalerrietan ezohiko osoko

